

Hezkuntza publikoa euskalduntzeko baliabide gehigarriak LABek erakutsitako jarrera irmoarengatik adostu eta aplikatu ditu Hezkuntza Sailak, ez bere borondatez

Azken asteetan komunikabide desberdinen bidez Hezkuntza Sailak bere egin ditu hezkuntza publikoan euskara eta euskalduntzea indartzeko hainbat neurri, hala nola, EUSLE, HIPI edo Hizkuntza proiektuen koordinatzaileak. LABek adierazi nahi du neurri horiek ez dituela Sailak bere borondatez eta aldebakarrez egin, baizik eta aurreko ikasturtean burututako greba eta mobilizazioen ondorioz, sinatutako akordioan adostutakoa betez.

LABek irakasleen lan baldintzak arautzen dituen akordioa sinatu zuen STEILAS, CCOO, UGT eta Interinok taldearekin batera, baita ikastetxeak baliabidez hornitzeko irizpideak ere. LABek adierazi du sindikatuarentzat estrategikoak izateaz gain ezinbestekoak izan zirela hezkuntza kalitatea hobetuko duten baliabideak lortzea; besteak beste, euskara indartzeko, hezkidetzarako edota aniztasunari erantzuteko. Finean, herri bezala ditugun erronkei erantzuteko.

Zentzu horretan, akordioan jasotzen diren euskara indartu eta euskalduntzerako baliabideak LABek jarri zituen mahaigainean, euskarak bizi duen egoera larriari erantzuteko, negoziazioaren erdigunean jarritz. Are gehiago, Sailak baliabide horiek akordioan gehitzeko oztupoak jarri bazituen ere, azkenean, LABek izandako jarrera irmoari esker lortu ziren negoziazioaren hasieran ez zeuden eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea duten edukiak.

Hezkuntza Sailburua den Begoña Pedrosak harrezkero hezkuntza kalitatea hobetuko duten baliabideez zein euskara indartuko duten neurriez aritu bada ere lorpenak bere eginez, oraindik orain zenbait ikastetxeetan akordioan jasotako baliabide eta neurriak aplikatzeko daudela galdegin dio sindikatuak. Eta akordioan jasotakoa bere osotasunean betetzeko exijitu dio LABek.

Bestalde, LABek gogora ekarri ditu aurreko igandean egunkari bati eskainitako elkarrizketan sailburuak adierazitakoak, izan ere, sindikatua bat dator esandakoarekin: "ikastetxeetan ikusten dugunean prozesu bat egitean hezkuntza komunitate guztiari aukera ematen ziola iritzia emateko, erabaki onak adostuak izaten dira". Aitzitik, LABek salatu duenez, adierazitakoaren aurka, Sailak hezkuntza komunitate zein alde soziala kontutan izan gabe, gardentasun ezaz eta aldebakarrez hartzen jarraitzen ditu erabakiak.

Azkenik, Pradalesen gobernuak egiteko modu berriak aski ezagunak zaizkiola adierazi du LABek. Behin eta berriz elkarrizketetarako eta adostasunerako duen prestutasuna publikoki adierazi arren, bestelakoa da errealitatea. Izan ere, soilik langileek mobilizazioetan erakutsitako indarrari eta borrokaren ondorioz izan dira edukien gaineko benetako elkarrizketak eta adostasunak.